

“Gure zinema gaur” aztertuko da aurten Komunikaldietan

2009/02/25

Aurten ere iritsi dira Komunikaldiak HUHEZI fakultatera. Martxoaren 4an izango dira, egun osoz. Komunikaldiak jardunaldiak dira, urtero egiten dira, beti gai jakin baten inguruan: tokiko telebistak, bikoizketa...

Aurtengo Komunikaldiak, berriz, gai honen inguruan landuko dira: “Gure zinema, gaur”.



Egitaraua

09:00 Jaialdien aurkezpena

09:15 Iosu Zabala, Mondragon Unibertsitateko errektorea

09:30 Mahai-ingurua: "Fizkiozko zinemaren egungo panorama". Parte-hartzaileak:

- Jabi Elortegi ('Zorion perfektua' filmaren zuzendaria)
- Jon Garaño ('Axun eta Maite' filmaren zuzendaria, Jesus Mari Goenagarekin batera)
- Aizpea Goenaga ('Sukalde-kontuak' filmaren zuzendaria)
- Moderatzailea: Aitor Arregi, 'Lucio' dokumentalaren zuzendari eta Huheziko irakaslea

11:00 Kafea.

11:15 Hitzaldi-elkarrizketa. Juanba Berasategi ('Barriola, San Adriango azeria' marrazki bizidunetako filmaren egilea). Gidaria: Andres Gostin, Huheziko irakaslea

13:15 Bazkaria

15:00 Mahai-ingurua: 'Euskarazko film luzeak ekoizteko eta banatzeko zailtasunak'. Parte-hartzaileak:

- Maria Jesus Diez (Barton Films banaketa etxeko arduraduna)
- Iñaki Gomez (Eusko Jaurlaritzako Kultura Sustatzeko zuzendaria)
- Joxe Portela (Ibaia, Ikus-entzunezko Ekoiztetxe Independenteen Elkarteko lehendakaria)
- Moderatzailea: Eneko Olasagasti, zinema zuzendari, gidoigile eta Huheziko irakaslea